

«Bidezko mina»

Antton Izagirre

Urkullu eta enparauak gatazkaren konponbidea eta bizikidetzat hartzeko lelo baten bueltan gotortu dira eta aspaldi honetan ez dute beste egitekorik, aurrera ez egin izanaren erantzukizuna eta kalte guztien errua ezker abertzaleari leporatzea. Behin eta berriz errepikatuko dute «egindako min bidegabearen aitortza» egiteko eskarera. Adierazi nahi baita Euskal Herrian eta euskal gatazkan egindako min bakarria ETAk eragin duena dela. Horri deitzen diote nonbait «min bidegabea».

Horren baitan pentsa liteke badela kontrako «bidezko mina». Estatuak eragindako mina, gerra zikinaren bidez, torturaren

bidez, polizia indarkeriaz, atxiloketen bidez eragindakoa, ez al da bidegabea? Ala, «bidezkoa» da min hori?

PNVk eta bere agintariek ez al dute eragindako minaren aitortza egiteko beharrik? Presoen sakabanaketa babestu eta bultzatzean, torturaren inpunitatearen aurrean beste alde batera begiratzean, estatuen politikak babestean, ertzaintzaren tortura eta lan zikina zuzentzean «eragindako mina» «bidezkoa» ote?

Agian, haienezat, alde bateko biktimei eragindako mina «bidegabea» da eta beste biktimei eragindako «bidezkoa». Ez! Biktimeentzat, eragindako mina, «mina» da, adjektiborik gabea.

Benetan bakearen bidean amaierara eramango gaituen bideorriak egin nahi baldin badugu hitz-jokoak alde batera utzi eta guztiok, batzuk eta besteok, eragindako minaren arduraren erantzukizunari aurre egin beharko genioke eta egun PNVn erantzukizunak dituztenek –Urkullu, Ortuzar, J. Fernandez...– badute nondik hasi eta zertaz damutu eta eragindako zer min aitortu.

Koldarkeria hutsa litzateke errenta politikoak lortze aldera bake bidez maltzurra eta interesatua egitea. «Bidegabea» ala «bidezkoa» bereiztea, eragindako minaz ari garenean, asmakeria hutsa da, eta asmo txarrekoa. •

Garrantzia duen hori

Naiara Garzia

Kasik 18 urte igaro diren arren, selektibitateko egunak oso ongi gordeta dauzkat memorian, tiradera batean bezala edo markatu-ko gaituen zerbait gertatzen zaigunean bezala, xehetasun maila horrekin, kasu gehienetan ez bezala, intentsitate eder batekin oroitzen baititut bi egun horiek.

A-15a ireki zutela 2 urte besterik ez zirela igaro gogoan dut; nola joan ginen herritik gida-baimena atera berri zuen lagun batekin, Añorga inguruan galdu ondoren, unibertsitatera justu-justu iritsiz.

Edo nola egun batzuk lehenago Villa-Lobos musikari brasildarraren diskoa topatu nuen: azterketen arteko deskantsuetan nire burua ikusten dut *walkmanarekin* eta bertan grabatutako musika hori entzuten, arratsaldean beste bi azterketa izan arren, musikaren garrantziaz kontziente: une horretan jada banekien zer zen garrantzitsua eta zer ez, zela musika, zela literatura... eta selektibitatean lortu beharreko kalifikazioa alderdi praktikoaren ikuspegitik garrantzitsua izan arren, bazela askoz ere garrantzitsuagoa zen beste zerbait. Hau

da, zer zen praktikoa eta zer garrantzitsua bereizi ahal izatea.

Heldutasunak ez du zergatik pragmatismoaren inperio hutsa izan behar, gizarteak hori sinestarazi nahi digun arren (gizarteak ere ez luke horretara mugatu behar); izan ere, zenbat ordu, urte eta esfortzu inbertitzen ditugu alderdi praktikoaren ikuspegitik garrantzia duen horretan?

Sistemak berak argitasun hori lapurtu edo ahaztarazten digu, horretarako baita sistema. Norberaren lana da horri eustea eta besteen esku ez uztea. Benetan garrantzitsua den hori. •